


**Fitxa teknikoa / Ficha técnica**

Izenburua / Título: **Zientzia eta teknologia ongizate-gizartean**
Egilea / Autor: **Luis C. Zaballos Ruiz**
Azaleko irudia / Imagen de cubierta: Jon Cazenave
ISBN / EAN: 978-84-9746-557-1
Salneurria / Precio: 20 € (BEZ barne – IVA incluido)
Orri kopurua / Nº páginas: 244
Formatua / Formato: 24 x 17 cm

## Lana / La obra

Tradizionalki, pinturari, musikari, literaturari, zinemari eta arteari lotuta egon da kultura, eta ez, aldiz, fisikari, kimikari, ingeniaritzari edo teknologiari. Hamleten egilea edo Mozart ez ezagutzea kultura-gabeziatzat jotzen da. Ez da berdin jokatzen baldin eta norbaitek Newtonen legeak ezagutzen ez baditu edo elementuen taula periodikoa zer den ez badaki; orokorrean, nahiz eta zientziaren printzipioen oinarriak edo teknologiaren funtsezko eginkizunak ezagutu ez, oso landutzat jo daiteke pertsona bat. Guztiz harritzekoa da zein irizpide ezberdinak erabiltzen diren zientzia arloko ezagutza falta balioesteko beste edozein arloren aldean.

Bestalde, zientziaren eta teknologiaren menpean dagoen munduan bizi gara. Ez dago inongo dudarik. Lurreko hainbat lekutan gizakien egoera oso bestelakoa izan arren, herrialde guztietan ikus dezakegu, neurri handiagoan edo txikiagoan, zientziaren edota teknologiaren eragina.

Baina, badakigu zer den zientzia? Badakigu zer neurritan mugatzen duen zientziak gure eguneroko bizimodua? Zer jakin beharko genuke zientziaren eta teknologiaren inguruan? Zein izan behar da gure jarrera zientziarekiko eta teknologiarekiko?

Are gehiago, eskuzabalak izan gaitezke, era guztietako teknologia berriak eskuratu baititzakegu zientziaren aurrerakuntzei esker, eta bizimodu erosoagoa izan. Bestetik, jarrera kritikoa izan behar dugu, aurrerakuntza bakoitzak izan lezakeen ordainari erreparatuz.

ISBN 978-84-9746-557-1
9 788497 465571

www.erein.com

erein